

Ikaslearen erronka-dokumentua



XX-YYY-ZZZ



OATS-XX-YYY-ZZZ

Zeliakia eta glutenik gabeko elikadura

Erik jantokiko arduradun bezala ari da lanean Gasteizko eskola batean. Ikasle zeliako batentzako menua berrantolatzea proposatu diote eta supermerkatura joan da produktu desberdinak bilatzera.

Lagunduko al diozu menu berrantolaketa honetan dituen zalantzekin?

Heziketa-zikloa	Dietetika GMHZ
Hasiera-data	18.01.2027
Bukaera-data	22.01.2027
Ordu kopurua	9

Parte hartzen duten moduluak

Dietetikari aplikatutako fisiopatologia

Amaierako gaitasunak

A.G.1. Digestio-prozesuan eta prozesu metabolikoan gertatzen diren alterazioak aztertzea, sindrome-patologiko sarrienak giza organismoan dituzten ondorioekin erlazionatuz.

A.G.2. Gizabanako baten edo pertsona-talde baten premia nutritibo-dietetikoak bere ezaugarri fisiopatologikoen eta jokaera-ezaugarrien arabera aztertzea.

Ebaluazio-irizpideak

MODULUA	AMAIERAKO GAITASUNAK		EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
DIETETIKARI APLIKATUTAKO FISIOPATOLOGÍA	A.G.1	Digestio-prozesuan eta prozesu metabolikoan gertatzen diren alterazioak aztertzea, sindrome-patologiko sarrienak giza organismoan dituzten ondorioekin erlazionatuz.	Digestio-aparatuaren oinarriko funtzioak alterazio patologikoek sortzen dituzten nutrizio-ondorioekin erlazionatzea.
	A.G.2	Gizabanako baten edo pertsona-talde baten premia nutritibo-dietetikoak bere ezaugarri fisiopatologikoen eta jokaera-ezaugarrien arabera aztertzea.	Pazienteen nutrizio-egoeran eragina duten eskakizun fisiopatologikoak azaltzea. Ingestio kalorikoaren balio aproposa egoera fisiopatologiko desberdinen arabera lortzeko burutu behar diren eragiketak azaltzea.

Ebaluazioa eta kalifikazioa

Ebaluatua izateko baldintzak:

- Erronkara bertaratzea.
- Zereginak ezarritako epean entregatzea. Epez kanpo entregatzeak erronka ez gainditzea eta hura berreskuratu behar izatea dakar.
- Lanaren jarraipen koherentea.
- Irakasleekin finkatutako bileretara joatea.
- Sinatutako kontratua betetzea.
- Planteatutako ekintzetan aktiboki parte hartzea.
- Eguneroko lana betetzea.

Ebaluaziorako urrats hauek egingo dira:

- Erronkaren azken dokumentuak eta aurkezpenak ebaluatuko dira.
- Taldeak bilduko dira prozesua ebaluatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.
- Irakasle-taldeak erronka baloratuko du eta etorkizunerako hobekuntzak proposatuko ditu.
- Irakasleak taldearekin bilduko dira hobekuntza-proposamenak biltzeko, ikasleei proposamenak aurkezteko eta hurrengo erronka hobetzeko konpromisoak adosteko.
- Ikasle bakoitzak bere autoebaluazioa eta zeharkako gaitasunen koebaluazioa egingo ditu.
- Irakasleek banan-banan hitz egingo dute ikasle bakoitzarekin, konpetentzien emaitzak emateko eta hobekuntza-konpromisoak ezartzeko.

Konpetentzia teknikoak eta zeharkakoak ebaluatzeko, errubrika bat egingo da ebaluazio-irizpideetatik abiatuta.